

ANTOLATZE GARAPENA



1999ko Otsaila

ANTOLAKUNTZA

Zbkia
TST 20183
DOKUMENTAZIO
ZENTROA
E.T. N.º 6

ANTOLATZE GARAPENA

0.- HITZAURREA ETA EZTABAIDAREN AZPIMARRAKETAK

0.1.- Hitzaurre orokorra.

Hitzaurre honen bitartez, Idazkaritza Nagusiak, nahiz Biltzarrean mahaigaineratu ziren erronkak zuzen ulertuak izan daitezzen, nahiz Sindikatuaren bilakaerak eragiten dituen behar berriei erantzuteko, beharrezkoa erizten dizkion elementu orokorrak finkatu nahi ditu.

Gure azken Biltzarraren antolatze ereduari buruz onetsitako ebazpenak erreferentetzat harturik, **orokorrean behar bezainbesteko garapen eza egiaztatzen da**. Nahiz lurralde eta sektore mailan, nahiz arloei dagokienean, ez gara gai izan pentsatzen dugun lan soziopolitiko eta sindikalen ildoak eraginkortasun handiagoz garatu daitezzen gure bolumena eta ardura behar duten mailetan sindikatua antolamenduari dagokionez kokatzeko.

Hauxe da une egokia **guztion artean gogoeta egiteko eta beharrezkoak diren antolamendu egokipenekin erronkari ekinez** egoera hobetzen lagunduko digun eta, era berean, datorren Biltzarrerako abiapuntu gisa lagungarri gertatuko zaigun esperientzia metatu.

Hauteskunde sindikalak, gogoetak eta neurri zuzentzaileak eskatzen duten emaitza irregular batzurekin, era berean, antolamendu mailan beharrezkoak diren aldaketeei ere ekiteko, lan honetan integratu behar dute.

Sarrera orokor honetan ezin dezakegu, eta ez dugu egin behar, eztabaidarako proposamenaren filosofiaren azpian dauden beste alderdi garrantzitsuak abstrakzioerik egin. **Egungo egoera politiko honetan, LABek ardura eta erreferentzialtasun maila garrantzitsuak dituen eragile aktiboa izanik**, gure proiektuaren inguruan, ilusioz, pertsona berrien parte hartzea eta inplikazio mailak sustatzeko une aproposa da. Alegia, gure antolatze esparru desberdinetan sar daitekeen pertsona kopurua, dauzkagun ardura eta esku hartze maila ezberdinetan, handitzeko.

Hori guztia dela eta, lan honekin gogoeta, eztabaida eta erabakitze prozesu bati hasiera emango diogu, eta hau lehenengo aldi batean, Martxoaren amaieran gure bigarren Biltzar Nazionala burutzean amaituko da. Lehenago, lurralde, sektore, alor-egituretan... eta herrialdeetako Biltzarretan lan honen edukia orokorrean eta espezifikoki (eskualde, herrialde, sektore...-egoera) jorratuko dira.

Biltzar Nazionala egin ondoren egitura bakoitzak, batik bat Herrialde Biltzarrek, Biltzar Nazionalaren ebazpena Idazkaritza Nazionalarekin, dinamizatzailerik gisa, gauzatuko du.

0.2.- Hauteskunde Sindikalen Balorazioa.

Hauteskunde sindikalak sentsazio kontrajarriak utzi digu. Alde batetik, Baskongadetan, izan dugun aurrerapena, UGTeren aurretik izan dugun hirugarren kokapen horrekin, eta Enpresa Batzordetan espezifikoki aurrera egitea (CCOOREkiko 80 ordezkarietara hirugarrenak geratu arte), printzipioz irudi baikorra isladatzeko adierazleak ematen digu. Eta, begibistakoa da LABen proiektuaren aurrerapena aipatu beharra dagoela.

Era berean Nafarroan ditugun emaitzak eta itxaropenak LABek orokorrean %12a eta Enpresa Batzordetan %15a gaindiko dituela adierazten digu. Oso emaitza onak dira eta planteaturiko xedeak beteko lituzke.

Baina gogoeta zabal hau egin ostean, ezin dezakegu errealtate objektiboa ezkutatu: genuen itxaropena, ez da ez Bizkaian, ez Araban bete eta beraz, aurrerapen osoa, Baskongadetakoko bigarren indarra izateko aukera bera ere "ihes egin digu" edo "ihes egiten utzi digu".

Bizkaia eta Arabari dagokienean, eskualdeko emaitza ez homogeenak atera direlarik, emaitzek, daukagun ordezkatze maila direla eta, gelditze arriskutsua (beherantzako joera arina) adierazten digute.

Baldintza politikoak, LABen ildo eta iharduera... dela eta, beste emaitzak izan genitzakeela ondoriozta liteke, baina, berriro ere, sindikalgintzan aurrerapenak ez dira "baldintza orokorren edo inguru baldintzengatik" bakarrik etortzen, baizik eta sindikatua langileengana iristeko eta haiengandik hurbil egoteko ahalmenatik. Eta horri lan militantea, antolatze garapena... esaten zaio. Eta honetaz ari garela, badira lurralde eta egitura errealitate batzuk terapia eraginkorra eta premiazkoa BEHAR DITUZTENAK.

Honela ba, hauteskunde sindikalen balorazioa edo balantzeak antolatzearen berregokipen honetan, hortik eratorritzen diren begibistako beharrak hutsik egin gabe OSATZERA eramaten gaitu. Asmo konstruktiboz baina, baita ere, egoerak eskatzen digun ardurarekin.

0.3.- Sindikatuaren Biltzarra Egin Arteko Erronka Eta Apustuak

Antolatze berregokipen hau Biltzarra egingo dugunetik urte batera planteatzen da, Euskal Herriarentzat ezaugarri historikoak duen koiuntura politiko batean eta epe motzean, LABentzat eta oro har euskal sindikalgintzarentzat garrantzi handiko lan ildo batzurekin.

Erronka hauek ekartzen dizkiguten eskakizunak eta sindikatuaren antolatze garapenari egin behar zaion derrigorrezko bulkada eta, era berean, barne antolatzearen atal askoren hobekuntza bateragarri egin daitezen derrigorturik gaude.

Biltzarra egin artean daukagun testuinguru politiko-sindikalaren kokatzeagatik abiatuaz, LABen iharduera eta kezkek ondorengoan arreta jarriak izango direla aipatu soilik:

0.3.1.- Politika orokorraren abadagunea

Euskal Herriarentzat garrantzi handiko abadagune politiko batean gaude. Lizarrako akordioa, ETAre su-etena... eta abertzale eta aurrerakoen arteko elkarkidetzaren eboluzioak (Udalen Batzarra, Lizarraren sozializazioa, Presoak, euskara...) gure herriari eszenategi politiko berria zabal diezaiozun une historiko batean kokatzen gaitu.

Sindikalgintza-abertzaleak egoera berriak zabal daitezen protagonismo uneak izan baditu (LAB-ELAren arteko elkarkidetzak), orain zabaldutako prozesua sakontzen eta sustatzen lagundu behar du. Ildo honetan, enpresa edo herri mailan dugun iharduerak honakoa hartu behar du bere gain:

- a) ***Lizarra "gizarteratzea"***.- LABeko militantziak "Lizarra txikitari" parte hartu behar du eta, era berean, lantokietara bere EDUKI DEMOKRATIKOA eraman behar dugu. Ideologi politika gero eta gehiago indartu behar dugu, espainiar mass-medien "gurutzada" baldintzatuz.
- b) ***"Presoak Euskal Herrira!"***.- Urtarrilaren 9ko manifestaldiaren ondoren eta PPren itxikeria ikusirik, presio sozialeko neurriak egituratzen jarraitzea beharrezkoa egiten da. Urtarrilaren 9ko konpromezu politiko, sindikal eta sozialari herri eta hauzoetan "gauzatu" behar dugu, gutxina-gutxinaka presio sozialeko eratan "jauziak" egitea eramango gaituen parte hartze dinamika sortuz.
- c) ***"Bai Euskarari!"***.- Kontseilu eta korrikaren kanpainaren garapenak gure iharduera ere ezarriko du. Euskara enpresetara eraman behar dugu, "biziduna" bihurtu behar dugu eta oro har gure hizkuntza, gure nazio ezagariaren funtsezko osagaia dena, zabaltzearen lan egin behar dugu.

0.3.2.- Hauteskunde sindikalak.

Maiatza arte emaitzak hobetzeko ahaleginak, ongi antolatua eta neurtua izango dena, egin behar ditugu, eta ondoren, egin nahi dugun antolatze bultzadaren ildoan, LABen ordezkariaren eta afiliazioaren hedapenari erantzuteko mekanika "egonkorragoaz" eta "iraunkorragoaz" hornitu behar dugu.

0.3.3.- 2. Enpleguarekiko aldia

Otsaila eta Maiatzaren bukaera bitartean 35 orduko eta soldata sozialaren errebindikapena sentsibilizazio eta mobilizazioaren ardatza izan eta patronala eta administrazioak mugitzera behartuak izan zitezten iharduera handi bati ekin genion.

Lehenengo aldiaren ondoren eta Urtarrilako zatiko akordioaren ondoren euskal sindikalgintzak enpleguarekiko duen errebindikapena berriro bere eskaeren ardatzat hartzen du lanaldiaren murriztapena. Alde bateko akordioaren gauzatzea (aparteko orduak, ordezkariaren kontratua) enpresetan eta sektoretan eta, sentsibilizazio-mobilizazio aldi berri honetan sustapenak hurrengo hilabetetan izango dugun egintza sindikala markatuko du.

0.3.4.- Biltzarraren antolakuntza.

Sindikatuaren V. Biltzarra dagoeneko hurbil dugu. 2000. urteko udaberria, berriro, sindikal proiektu hau sustatzeko eta Euskal Herri nazionala eta soziala eraikitzeko erarik eraginkorragoenean tresna gisa kokatzeko gogoeta puntua izango da.

Ekainatik aurrera karakterizazio, txostenak egiteko, eztabaida zehaztearen... prozesua zabalduko da; honela ba, Biltzarrak ere sindikatuaren dinamikak ezarriko ditu.

EZTABAIDAREN METODOLOGIA ETA EGUTEGIA.

- Idazkaritza Nazionalen lana ontzat emango da. - Otsailaren 15ean.
- Lanen banaketa eta eztabaida egituretan. - Otsailaren 22tik Martxoaren 20ra arte.
- Herrialde Biltzarrak. - Martxoaren 26-27an.
- Biltzar Nazionala. - Apirilaren 10an.

1.- ANTOLATZE GARAPENAREN BALANTZEA

Azken bi urtetan egindakoaz balantze bat egiteko garaian, bada esaldi bat guztia laburbiltzen duena: **ezin gaitzke gustura egon**. Karakterizazio errazak edo/eta zabaletan (baikorra edo ezezkorra) ihardun gabe, esaldi horretan, neurri zuzentzailetan asmatzeko, gogoeta autokritika baten eta zentsurarik gabea izango denaren beharra defendatzen dugu. Begibistan da gauzak egin direla, sindikatuak aurrera egin du euskal gizartean zuen pisuan eta eraginean, baina antolatze mailan, ez da bat suertatu gure parte hartze eta zabaltzerako helburuen garapenerako eraginkorrak izan gaitzen behar ditugun planifikazio eta erritmoekin.

Lehenengo eta behin, antolatze garapena, nahiz lurralde nahiz sektore egituretan, ez dela lan plangintzak egiterakoan lehenetako bailtzen hartua izan, egiaztatu behar da. **Bilakaerak eta egitura ezberdinen sendotze mailak erakusten dizkigute, kezkarriak diren gelditze mailak, atzerapausoak ez direnean**, eta begibistakoa denez, horiei ekin beharko diegu.

Egun, gure egitura, lurralde eta sektore alor bikoitzari dagokionez, herrialde eta nazional esparrutan ia erabat finkaturik dagoela esan daiteke. Hortik aurrera, eskualde esparruan ahultzen da eta praktikan ia lausotzen da oinarriko esparruetan, hori izanik biak berriro bat egin behar duten unea. Oso laburki adieraziaz lurralde, sektore eta arlo mailan Sindikatuak duen Zuzendaritza eta egitura ertaina (herrialde, eskualde) finkaturik dagoela baina "beherantzako" proiektioan GELDIARAZIA dagoela esan daiteke. Hori dela eta, oinarriaren (atal sindikalak, herri biltzarrak) antolamenduan "hutsune" handi bat suertatzen da. Hots, antolatzean "crac" bat gertatzen da, eta askotan alperrikako terapiekin bideratzen saiatzen dira (eskualdeko ordezkarien bileren bitartez adibidez).

Gogoeta orokor hauek egin ostean, egitura bakoitzeko alderdiak zehaztuko ditugu. Alderdi hauek, **kezkarri-gi mugatua dagoen antolatze garapena** deritzaguna, era argi batez isladatzen dituzte.

Lan honetan aztertzen ari garena, antolatze garapena dela argi eta garbi geratu behar du, eta horren ondorioz, ez gara beste lan dinamiken ebalualzaia egiten ari, ekintza sindikala, hitzarmen kolektiboa, etab alegia.

1.1.- LURRALDE EGITURA

1.1.1.- Idazkaritza Nazionala.-

I.N.aren funtzionamenduak bere zuzendaritza zereginetan maila eta operatibitate handiagoa bereganatu du (ildo 5 sindikala eta soziopolitikoak), LABek abadagune politiko-sindikalean duen zeregin eta funtzioaz biltzarran eman ziren aholkuak era egoki batez garatuz.

Bere oinarrizko zereginen ikuspegi baikorrari, esparru askotan Sindikatuaren "barne" garapenari eskaintza, plangintza... ez egokia gehituko diogu kezkatuak. Zereginen metatzea, baldintza politikoak eta beren lehentasunak, nazio mailan gertatu diren aldaketak, beste esparrutan "antolatze" arduraren desagertze eta/edo garapen ezak... "zuzendaritza", "plangintza" eta benetako ausardi eza izatea eragin du Idazkaritza Nazionalan.

1.1.2.- Herrialdeko Idazkaria:

Idazkaritza Nazionalarekin eta eskualdekoekin lotura izanik eta koordinatuz aldirokatasunean sustaturiko egitura da. Nahiz eta bere funtzionamenduaz, protagonismo mailaz eta ekarpenaz balorazio ezberdinak izan daitezkeen, fisikoki finkatua dagoen egitura baten aitzinean gaude.

Gogoetarako berriazko gaia Herrialdeko Idazkariaren ardura eta proiektzioa da. Zeregin tekniko-operatiboen pilotajeak eta nazio mailako orientabideen garapenak Herrialdeko Idazkaria, sindikatua behetik "eraikitze" dinamikan funtsezko sutabetako bat ez izatea, izan beharko lukeen bezala, eragin du. Alegia, lurralde, sektore eta arlo mailako antolatze garapenarena.

1.1.3.- Eskualdeko Idazkaritza:

Formalki finkaturik daude, nahiz eta eskualde batzutan "antzinako zonaletan" erabiltzen ziren dinamika darabilten.

Bera badela egiaztatzeaz gain, egitura orokorraren "maila" huts gisan osatutako eskualde egitura batekin topo egiten dugu, eta horregatik, PLANIFIKAZIOZ, LAN BANAKETAZ ETA ARDURAZ sindikatua azpitik eraikitze ezgauza da. Benetako egitura bat baino koordinazio markoa dirudi.

Dauzkagun giza baliabideen arduren desberdintasun ezak eta gezurrezko "finkatze" horrek goitik eta behetik datorenari "erantzun" hutseko dinamika batera garamatza, baina, berriro diogu, PLANIFIKAZIO, EBALUAZIOK... gabe.

1.1.4.- Herri Biltzarra:

Hau gure antolatze eredu funtsezko erroka bat dena, garapen aldakorra izaten ari dira eta eskualde egituraren inguruan egindako gogoetaz eraginda dago. Gutxi dira eratuak daudenak eta berezko dinamika dutenak. Horietan atal sindikalen ordezkariak eta osotasun proiektzioa emango dien arloen presentzia murrizta da. Ia ez dago "sindikatu hedatzearen" ardurarik.

Lurralde egiturari buruzko azken gogoeta, **nahiz arloetan nahiz sektoretan, beren markoetan sortzeari eta garapenari egiten dioten ekarpen urria.**

1.1.5.- SAILAK:

Ez dugu aurrerapenik izan LABen baitan beren arazoan aurrean langileriaren zati desberdinei berriazko antolatze esparrua eskainiko dieten lan sail gehiago sortzeari dagokionean ("erretiratuak", autonomoak, kooperatibismoa...). Azken Biltzarrean onetsitako hirurekin darraigu: Langabetuak, Emakumeak eta Gazteak. Hauei dagokienean badira bi alderdi zuzenki eragiten dizkiena:

- a) Lurralde eta sektore egituren garapen urriak, orokorrean, bere hedapenari negatiboki eragin izan dio.
- b) Emakumeen, gazteen eta langabetuen presentzia sindikatuaren egitura desberdinetan ezin daiteke, berez, sailen garapenaren berme gisa ulertuz.

Langabetuak: Hasiara batean sortu ziren taldeak, egun **ia ez direla** esan daiteke, lausotzen joan dira. Egun, ezin dezakegu esan antolatze errealitate bat denik. ILPen garapena, salbuespen batzuk ezik, politika sozialaren inguruan LABen iharduerari sendotasun handiago batez (herriaren oinarrizko egituraren sartuaz) hornitzeko ez da lantzen ari.

Emakumeak: Bada batzorde nazional bat, sindikatuaren egituretan eraginkortasunez eragina izango duten lan taldeak sendotu daitezkeen dinamikak egiten eta ahalegintzen ari dena. Herrialdeen arteko garapena desberdina suertatzen ari da, eta, gainera, herri zerbitzuetako emakumeen sektoretan oso oinarriturik dagoena. **Gehienetan, sailtako ardurak sindikatuan, beste batzorekin partekatuta daude.**

Gazteak: Batzorde Nazionala finkaturik dago, beren Biltzarretik eragin ziren **ebazpenak garatzeko, antolatze gaietan, eta herri taldeak sortzeko zailtasunak dituzte.**

1.2.- SEKTORE EGITURA

Atal honetan, derrigorrez, iharduera desberdinak biltzen ditugun 10 sektoreen arteko abiapuntua eta errealitateak ezberdinak direla adierazi behar dugu. Horrek bere egungo egoera zehazterakoan jarraibidetzat balio digu. Beraz, balantzean ez badugu "ez-ikusiarrena" egin behar, abiapuntu desberdinak ezin daitezke izan ere, bi urtez sektore **garapen motel eta mugatuaz** igaro ondoren, erabil dezakegun argudio bakarra.

- a) Azken Biltzarra egin baino lehen eraturako sektoreak eta horren ondorioz baliabide eta esperientzia handiagoa dutenak; hauen lekuko, **Osasungintza, Irakaskintza, Administrazioa eta Finantzaria dira.**

Osasungintzako, eta Irakaskuntzako sektoreek antzeko ezaugarrietako antolatze garapen maila dute. Beren nazional eta Herrialdeetako egiturak finkaturik dituzte, nahiz eta lan organigrama osatzerakoan, eta batik bat, sektore gisa bereganatu behar dituen zeregin guztiei ekiterakoan zailtasun gabeak ez diren. Aitzitik, Administrazio sektoreak zailtasunak ditu herrialde eta azpi-sektoretako egiturak sendotzeko.

Ordu sindikalen pilotze sistemak, (nahiz eta administrazio sektorearen arazoak desberdina diren), berez nahikoak diren baliabide kopurua ematen die, nahiz eta batzutan ardurak eta/edo liberazioak hartzen dituzten militante batzuren jarraitasun urriak sektore hauen behin-betiko hedapena zailtzen duen. Sektore alorretik egiten diren atal sindikalen harremanak eta dinamizazioak, badituzte hutsune eta irregulartasun nabariak ere.

Atal **finantziariak** Batzorde Nazionalatik, eta baita ere nazional mailako azpisektoretatik ere (Banka, Kutxak, aseguruak), behera jariatzen ez den **antolatze-inertzia** bati eusten dio. Bere egiturekiko garapenari dagokion gelditasuna nabaria da.

- b) Bere eraketa hasten duten sektoreak eta egoera desberdinak dituztenak: **Siderometalurgia**, nahiz afiliazio, nahiz ordezkapenari dagokionean eragin garrantzitsua izanik, nazio mailan nahiko banaketa homogenea duena. **Garraioak**, errealitate eta arazo oso desberdinak dituzten azpisektoreak biltzen ditu (Merkantzien, bidaiariaren, tren, aireko, itsas, telekomunikabideetako, ... garraioak). **Arrantza**, sektorearen ezaugarriak dela eta zailtasun handiak daude egiturak finkatzeko.

Siderometalurgi sektorean, antolatze garapenari dagokionean **ez dira aurrerapen handirik gertatu**. Sektorearen dimentsioa berak eta daukan baliabide mugatuek baldintzatzen dute neurri handi batean egitura egonkor bat sortzea eta dinamizatzea. Begibistan da sektoralizazioan aurrerapen nabariak eta erakundearengan duen eraginaz mintzatzea sektore hau sustatzea dela.

Arrantzako sektorearen garapena, esan dugu bere ezaugarriak direla eta **oso zaila dela egitura egonkorra finkatzea**, praktikan liberaturik dauden pertsonetara murrizten da, nahiz eta puntualki, laguntzaren bat ala beste izaten duten.

Garraioan, bertan dirauten errealitate eta behar desberdinek, Batzorde Nazionalatik eta Herrialdeko bat edo bestetik at, sektore garapena sustatzea zailtzen du. Hauek, berezko dinamikak dituzten enpresa/azpisektore indartsuetako ataletaz (Renfe, Eusko tren, Telefónica, Portuko Junta...) osaturik daude.

- c) Osatzeke dauden sektoreak, ez horregatik garrantzi gutxiagokoak: **Kimikak eta Energia** (Paperera, paper-orea, kartoia eta arte grafikoak). **Merkataritza, Ostalaritza eta Garbikuntza. Eraikuntz, zur-industria, beira eta zeramika.**

Eratu gabeko sektoretan, salbuespen batzutan ezik eta hauteskundealdiarekin nahiko zerikusia dutenak, ez dugu aurrerapenarik izan. Hau biltzarra egin genuenetik zorrotasunez joratu ez dugun gaia da eta premiazko eta planifikaturiko berbideratzea behar du. Dena egiteke dago.

1.3.- ATAL SINDIKALAK

Behin lurralde eta sektore egituren errepasso bat egin ondoren, **derrigorrezko deritzagu balantzearen ekarpen gisa, Atal Sindikalaz berariazko gogoetarako (bi egiturei dagokiena) atal bat sartzeari.**

Gogoeta argi batez abiatzen gara: **atal sindikala lan dinamika desberdinak bideratzen dituen onarriko alorra da; atal sindikalak bizkortzen ez ditugun heinean antolatze garapenean trabaturik jarraituko dugu.**

Atal sindikalaz hitz egiten dugunean lantokian dagoen afiliatu multzoaz dihardugu (**afiliatuen batzarrak**). Oro har, **ordezkariarengan eskuordetasun bat gertatzen da.**

Kontsiderazio orokor hauetatik gure balorazioa atal sindikalen sendotzeaz (daukagun antolatze "crac" horren ondorioz) **ez da batera baikorra**. Badira oso onuragariak eta eredugarriak diren errealitateak, baina, orokorrean, atal sindikala oinarritzko antolatzearen hastapen gisa, ez bakarrik enpresan esku hartzeari dagokionez, baizik eta sindikatu antolamenduaren ardatz-abiapuntutzat hartuaz, **EZ DAUDE era egoki batez, EZ GARATUAK ETA EZTA ERE DINAMIZATUAK.**

2.- ANTOLATZE GARAPENAREKIKO PROPOSAMENAK

2.1.- GOGOETA OROKORRAK

2.1.1.- Oinarritzko iritziak

Egiten ditugun proposamenetan, sektore garapenaren apustua (baliabide zehatzekin) sindikatuak eskualde esparruan dituen bi egituren antolamenduarekin era egoki batez batu behar dugu. Honela, esparru honetako idazkaritzak sustatuko ditugu, Herri Biltzarrak eta atal sindikalerako izan behar duten proiektioan eraginkortasun funtzional batez hornitzeko asmoz.

Bi lan ildoek LABen egintza sindikaleko eta soziopolitikaren oinarritzko baliabideak hurbildu eta bizkortu behar dituzte: hau da, atal sindikala eta Herri Biltzarra.

Era berean, Biltzarra egin artean egin nahi ditugun ahaleginekin sindikatuaren aldi bat ahaztea espero dugu. Aldi horretan dinamika "iragazkaitzak" (egituren artekoak) darabiltzagula dugun sentsazioa eta sindikatuak ez duela lurralde eta sektore mailan antolakuntza eraikitzeke ardura zehatzik "historira" igaro behar dute, honela, LABen antolatze garapenaren aldi berri baten oinarriak jarritz.

"Antolatze garapena" moduan definituriko proposamen honekin batera LABen barne antolamenduan "kalitate" jautzia egin nahi dugu. Nahiko denbora alperrik galdu dugu barne antolatze esparru askori eraginkortasun, kalitate,... irizpideaz hornitzen, gure antolatze garapenean barneratuak izan behar dutenak ere. Behar jakinetara "bulkadaz" eta plan-gintza eta etorkizunik gabe erantzuten denaren sentsazioa egiten den proposamenarekin zuzendua izan behar da. Espero dezagun Biltzarra egin arteko urte bateko epean aldaketa nabariak igertzea.

2.1.2. Giza baliabideak

Sindikatuarekiko **ekonomi menpekotasuna eta erabateko arduraldia duten pertsonen** kopurua, beharren arabera, **era jarrai batez gehitu egin da, egungo aurrekontu-aukerengan era baldintzakor batean eragina izanik.**

Egoeraren arabera errealitate honetatik abiatuaz honakoak izan beharko liriteke baliabideen politikan kontuan hartu beharko genituzke irizpideak:

- **Gure nahiera ditugun eta izan ditzakegun giza baliabideak, sindikatu beraren kapitala da.** Garrantzitsua da honela ulertzea eta honela geureganatzeko gertu izatea. Liberatze behar berriak hitzegiteaz gain, eta ziur abadaguneak sortuko direla, asignatura bat egiteke daukagu; **egungo giza baliabideak optimizatzea** eta beraiek ardura egokienetan kokatzea. Hots, sindikatu honek, **erakundearentzako bere egokikotasunari bakarrik so eginez, BERKOKAPENAK** planteiatuko dituzten egitura eta ardurak izan behar ditu.
- Zenbait unetan, gutako edonork sindikatuan liberatu gisa eman duen aldia bete duela, naturaltasunez hartu behar da. **Ezin gaitzke sar hemen bizi guztirako eta jubilatuta arte gaudela pentsatuz. Ezin ditzakegu eraginkortasunik gabeko errealitateak metatu eta erabakiak hartzeko "beldur" izan.**
- **Antolatze garapenaren** erronkak planteiatu dugun bezala, honek, besteak beste, egituren funtzionamendua bermatuko digun **sindikal ataletan eta sektore egituren berezko baliabideak** lortzen bere islada izan behar du. Eta horretarako, formula desberdinen bitartez, eta lan egitasmoetan zehazturiko epe jakinetan, egituren funtzionamendua bermatu dezagun. **Berehala planteatu beharreko zeregina da, batez ere hauteskunde sindikalen emaitzak kontuan harturik.**

- Sektoreak **egintza sindikala guztiari** ekiteak, egun lurraldekotzat katalogaturiko **ardura batzuei, gutxina gutxinaka, lan mailak kentzen** utziko die, batez ere egintza sindikaleko arduradunari dagokionean. Beraz, ezin daitezke baztertu **beste ardura batzutan berkokatzeko** dauden planteamenduak.
- Eskualde eta/edo sektore bakoitzak izan behar dituen **baliabide kopurua** ez du "finkoa" izan behar. Eskualde bakoitzeko errealitatea eta bolumenak beharren gakoak emango digu. **Ez da gauza bera**, eta beraz ez dago horretarako irizpide itxirik, herrialdeko **hiriburu bat, eskualde bat, ekoizpen-ehuna sektore batean edo sektore** jakin **batzutan eta** berezko garapena izanik **oso bildurik dagoena, biztanleria aktibo handia duten** eskualdeak **edo eta alderantziz, LABeko afiliazio eta ordezkari kopurua,...**

2.2.- SEKTORE GARAPENA

Sektore garapenaren bultzadaz ari garenean, funtsean ondorengo alorretaz mintzo gara:

- Sektore egituratik ekiteko, lan xedeak argitasunez zehazteaz.
- **Eratzeke dauzkagun sektoreak sortzen utziko digun lan egitasmo bat** hasteaz: Kimikak eta energia, papera, paper oreka, kartoia, arte grafikoak. Merkataritza eta ostalaritza. Eraikuntza, zuraren industria, beira eta zerami-ka.
- Ekoizpen errealitatearen baitan, lurralde egituraren txertatuz, sektore egituratik lurralde egitura garatu behar da, honela, esparru horretan sindikatuaren zuzendaritza partekatuzeko ardura bereganatuz; hau da, **Lurralde egitura eta sozialaren arteko antolamendu egokia** sustatzea lortu nahi da.
- Lan egitasmo honi ekiteko **beharrezkoak diren giza baliabideak**.

2.2.1.- HELBURUAK ETA ZEREGINAK

Garrantzitsua da **mugatzea zeintzu diren** sektore egiturari dagozkion zereginak, honela, ahaleginak sakabanatzen eragotziz, lan plangintzak ahal den erarik zehatzenean burutu daitezken.

- Bere egintza esparru guztian hitzarmen kolektiboa egitea.
- Egintza sindikala, gatazkak, aholkularitza mailak... gure gain hartzea.
- Sektore politikoekiko jarraipena eta proposamenak lantzea.
- 50 langile gaineko enpresetan atal sindikalak sortzea, garatzea eta jarraipena egitea. Iharduera honetan esparru eta ordezkari berriekiko beharrezkoak diren heziketa garapenak sartzea.
- Dagokion lurralde egituraren (Herri Biltzarra) atal sindikala bakoitzeko ordezkari baten presentzia eta parte hartzea sustatzea.
- Ordezkatze (hauteskunde sindikalak) eta afiliazio mailan sindikatuaren hedapen egitasmo bat, sektore mailan, egokitzea.

2.2.2.- SEKTORE-LAN EGITASMOA

Errealitate desberdinetatik abiatua honakotan kokatzen da egitasmoa:

- **Osasungintza eta Irakaskuntza, eskualde mailaraino, horietan sektore bakoitza duen hedadura eta egoeraren arabera, bere egitura garatzera** jotzean. Giza baliabideak izateak, eta eskualde guztietan dagoen presentziak, bideragarria egiten dute.
- **Administrazioan**, nazio eta herrialde-egiturak sendotu daitezken, bere hedadura eta eboluzioaren arabera, bere eskualde kokapenerako urratsak egingo direlarik.
- **Siderometalurgian**, sektore bolumena eta bere ezaugarrien arabera **eskualde mailan** garapen bat bilatzea. **Batik bat 50 langile gaineko enpresen gaia** jorratuko den lan egitasmo bat egitea, eta eskualdeko sektore-arduradunek burutuko dutena.
- **Finantziaria, Batzorde Nazionala sektore klabeen** sustatu behar da, dinamika hau batik batik **hiriburuetara (eskualdetako egiturak sustatuz)** lekuz aldatuz, diseinu hau **azpisektoretako ezaugarriekin** osatuz.

- **Arrantza:** Sektore honetako egitura zabalak sustatzeko potentzialitate mugatuak, **ahal den heinean** bere egungo dinamika eustera eraman behar dute.
- **Garraioak eta telekomunikabideak:** Batzorde Nazionala, azpisektoreko egitura (aeroportuak, bide garraioak,...) sustatu behar dira eta enpresa handietako atal sindikalen arteko koordinazioa finkatu behar da (Renfe..).
- **Kimikak eta Energia, papera, paper orea, kartoia eta arte grafikoa. Eraikuntza, Zuraren industria eta zeramika. Bere eraketaren lan egitasmoa eta 50 langile gainera enpresetan duen eragina bideratu behar da** (kontuan hartu beharreko sektore errealtate ezberdinak izan arren). Ahal den heinean eta bere presentzia kopuruari dagokionez garrantzitsua den eskualdetan, **eskualde egiturak planteiatu behar dira.**
- Merkataritza, ostalaritza eta garbikuntza sektore gisa eratu diren arren, egokiagoa deritza **azpisektoretaz lan egiteari eta baliabideak eta ahaleginak lau hiriburuetan kokatzeari.**

2.2.3. XEDE HAUENTZAKO BEHARRAK.-

Osasungintza, Irakaskuntza eta Administrazioegintzako sektoreak beren berezko ezaugarriak direla eta, eta autosufizienteak direlako, eta administrazioari dagokionez izan daitekeena, alboan lagako ditugu.

a) Nazio mailako ardura baliabideak.-

Siderometalurgia (1), Finantziaria (1), Garraio eta telekomunikabideak (1), Arrantza (1), Kimikak eta Energia, papera, orea, eta arte grafikoak (1), Eraikuntza, Zura, beira eta zeramikaren industria (1), Merkataritza, ostalaritza eta garbikuntza (1).

b) Herrialdeko ardura baliabideak.-

Sektore bakoitzaren baliabide kopurua sektore bakoitzeko ezaugarriekin (dimentsioa eta bere kontzentrazio edo kontzentrazio eza) oso loturik dago. Hots, ez da gauza bera metalgintzaren sektore garapenaz hitzegitea, nahiko homogeneoki hedatua dagoena, eta beraz, baliabide gehiago behar dituena, edo merkataritzaz mintzatzea, hiriburuetan eta beren inguruetan kontzentrazio maila handiak dituena. Beraz, herrialde bakoitzak sektore garapenerako egitasmo bat zehaztu beharko du, eta berariazko baliabideak izateaz gain eta/edo ordu-pilatzeen bitartez egindako erakartzeak izateaz gain, eskualde bakoitzean egintza sindikalen ardurak berkokatzera derrihortuko du.

Abiapuntu honetatik eta erreferentzi gisa, honako gutxiengo baliabideetatik mintza gintezke.

- **Siderometalurgia:** Bizkaia (3), Gipuzkoa (2), Nafarroa (2) eta Araba (1),
- **Eraikuntza, Zur, beira eta zeramika industria:** Araba-Bizkaia (1), Gipuzkoa-Nafarroa (1),
- **Merkataritza, ostalaritza eta garbikuntzak:** Araba (1), Bizkaia (1), Gipuzkoa (1), Nafarroa (1).
- **Garraioak:** azpisektoretan diren aukeretatik definizio prozesuan.
- **Finantziaria:** zehazteke.
- **Kimikak, energia...:** aurrera doan heinean zehazteke.

2.2.4. BALIABIDE PROPOSAMENAK

Sindikatuarenganako menpekotasuna duten pertsonen kopurua areagotu dadin sindikatuak dituen mugak, sektore garapenari bultzada garrantzitsua emateko borondate garbiatik abiatua, alternatiba desberdinak planteatzea eskatzen digu.

a) Nazio-mailako ardurak:

Kimikak eta Energia, papera, orea, eta arte grafikoak - ?
Merkataritza, ostalaritza eta garbikuntza - ?
Eraikuntza, Zura, beira eta zeramika industria ?

Sektorea erabat eratzen ez den bitartean ardura hauek ez dira Idazkaritza Nazionallean kokatuko, antolakuntza eta egintza sindikaletik bide egonkorrak (gaien arabera) ezarri beharko direlarik.

b) Herrialdeko ardurak:

Planteatutako gainontzeko beharrentzat bi irizpide orokor daude herrialde eta sektoreko proposamenak egiteko:

- Sektoreek definitu ditugun zereginak bere gain hartzen dituzten heinean, egungo lurralde egiturek, logikotasunez, eta kasu bakoitzaren baitan, beren zereginak murriztuko dituzte eta era eskusibito batez, edo zereginak era bateragarri batez eginez, berkokatuak izan daitezke.

- Hauteskunde sindikalak, zenbait sektore eta enpresetan izaten ari garen hazkundea kontuan harturik, eskaintza egokia emanez, baliabideak erakartzeko bidea izan behar dute.

2.2.5.- ANTOLATZE NEURRIAK

Sektore garapena sustatzeko dagoen planteamendu honi guztiari, oro har **sektore egituraren antolatze eredu**an benetako antolaketa, benetan utziko duten neurriaz, lagundu behar diogu:

- **Herrialdeko sektore arduradunen** harremana eta lankidetzatza **Herrialdeko idazkariarekin (lurraldekoa) herrialdeko Idazkaritza konfederalaren bitartez.**
- **Eskualdeko sektore antolatzea** sektoreetako eskualde idazkaritzan sartuz, bere ekoizpen-ehunarengan koalitatiboki eta koantibatiboki eraginez.
- Bere ekintza sindikalean beste egitureei zuzenki ala zeharka eragin diezaiaketen gaietan sektoreen erabakitze ahalmena ardura konfederalen bitartez koordinatu behar dira.

2.3.- LURRALDE GARAPENA

Lurralde egiturekiko egokipenak honako xedeak dituzte:

- Aldi honetan, eta Biltzarra egiten den arte, antolatze sustapen hau funtzionaltasun eta operatibitate egokiaz dinamizatzeko Herrialdeko Idazkaria hornitu behar da.
- Eskualdeko egiturak sustatzea, ardurak zehaztuz eta sindikatua Herri Biltzarrekiko eta sindikal atalekiko eraketa planifikatuz.
- Lurralde eta sektore egituraketa azpitik antolatzea.

2.3.1.- HERRIALDEKO IDAZKARITZA

Bere lurralde esparruan zuzendaritza organo izaera kontuan harturik, jarraipena eman behar diogu, nahiz eta lan hau, oro har harturik, beharrezkoa da **sektore dinamikaren, arloen eta bere herrialdeko aparatuz parte hartzailea egitea**. Irtenbidea ez dator pertsona/arduradun gehiago organu batera ekartzetik, dagoeneko bere osaketa handia denean eta berez operatiboki nahiko korapilotsua denean.

Herrialde idazkariak proiektio konfederal batean bere zeregina bere gain hartu behar du. Ildo honetan, herrialdeko lau arduradunek bere zereginak ondorengoan berkokatu behar dituzte:

- Lurralde eta sektore mailan sindikatuaren sustapena planifikatu.
- Herrialde bakoitzean sindikatuaren esku hartzeari eta lan ildoari kohesioa ematea.
- Herrialde Idazkariaren zeregina egituratzeko sektore egiturekin koordinazio lotura egonkorak ezartzea.
- Herrialdean sindikatuaren arduradun "politiko" gisa beren buruak hartzea.

Begibistan denez, Herrialdeko Idazkariak zeregin hauei ekin diezaien, beharren arabera beharrezkoa den "staffa" sortuz egun diren egintza askoren bideratzea planteiatu beharko du. Ildo honetan, hauteskunde sindikalen, afiliazioaren, azpiegitura gaien, garatu gabeko sektoreen hitzarmen kolektiboaren... jarraipena herrialdeko idazkariaren "staff" gisa diharduen herrialdeko arduradun batek edo bik bere gain hartu behar dute.

Sektore garapenarekin Herrialdeko Hitzarmen Kolektiboko arduradunaren irudiak gutxina-gutxinaka desagertzera doaz, baina oraindik, ardura horren beharra daukagu, nahiz eta herrialde, eskualde edo sektoreko beste zereginekin bateragarria den.

2.3.2.- ESKUALDEKO IDAZKARITZA

Sindikatuak herri biltzarra eta atal sindikalenganako eraldaketari era zuzen batez ekin diezaioten, Eskualdeko idazkaria sustatu eta "zaindu" behar den egitura da. Egun, **Egintza Sindikala, Antolakuntza eta Lege Aholkularitza ardurak** eskualdeko motorra bilakatzen duen hirukia osatzen dutenaren iritziatik abiatuaz honako ildotan lan egin behar dugu:

- **Eskualdeko ardura organora**, era natural batez, eta ekonomi, gizarte eta ekoizpen-ehunan duen ezarpenaren ondorioz honela aholkatzen duten **sektore horien, "sektore antolaketa"** azaltzen den eran, **eranstea. Zenbaitetan honek eskualdean egintza sindikalaren ardura bakarka edo taldean hartzea ekar dezake.** Gai honek bere biziko garrantzia hartzen du hiriburua handietan. Hauetan, bere eskualde egitura dinamizatzeko ahalmena duten sektoreko arduradunetaz, eta lurralde esparru horretan sindikatuaren zuzendaritzan parte hartzeko ekarpenak egiteko maila dutenetaz osatua egon behar du.

- Derrigorrezkoa da **eskualdetan egintza sindikalari eta antolakuntzari dagozkion zereginak argitasun handiz mugatzea**, bestela, berariazko lan egitasmotan oinarrituak ez diren lan dinamika okerrak ezarriko genituzke, eta lan zamari (eskariari alegia) ahal den bezain ongi erantzuten saiatuko ginatke, azken finean, denetatik eginez, baina antolatze garapenean islada gutxi izanaz.
- Ildo honetan, **eskualdeko antolatze arduradunak**, sindikatuaren antolatze eta hedatze garapenari dagokionean, berezko lan egitasmot baten bitartez, **protagonismo handia hartzen du dinamizatzeko, koordinatzeko eta berak ardura hartzeko orduan**. Eskualdean, **sindikatuaren erreferentean bilakatu behar du**, nahiz barruari nahiz kanpoari begira.

2.4.- LAN ARLOAK

Planteatzen den antolatze sustapenak baldintza objektiboak sortu behar ditu, honela, arloak, beren lan egitasmoarekin aurrera egin dezaten, bai errebindikapen, bai antolatze intzidentzian.

Era berean, eta arloen zereginei buruzko gogoeta sakonagoa egin ondoren, egingo diren egitasmoen baitan beharrezkoak diren baliabideetaz hornitu beharko ditugu.

2.5.- ATAL SINDIKALA, HERRI BILTZARRA

Zaila izango da behar dugun antolatze garapen orekatua eta armonikoa izateko asmoa izatea, gure parte hartzearen funtsezkoak diren tresnak, **atal sindikalak (sektore mailan) eta herri biltzarrak** alegia, **(lurraldekoak/osoak) ez baditugu aktibaturik, edo beraiek aktibatzeke plangintza egiten badugu**.

2.5.1.- ATAL SINDIKALA

Atal sindikala **sektorea sortzen hasten garen** gunea da, baina baita ere, **herri biltzarrari** bizia ematen diogun lekua. Beraz, **berariazko lan egitasmoa egitea**, sektore eta lurraldeak nahasitaz, errealitate bakoitzari egokituaz eta nahiz lurralde nahiz sektoreetako zuzendaritza organotan jarraitze garria, egokitzegarria eta ebaluaziogarria izanik, bazter-ezineko gaia da.

Atal sindikalak zerbait bizia izan behar du, bertan biltzen den lantokiko afiliazioa **sindikatuaren alderdi aktiboa** sentitzeak atal sindikaleko ordezkariaren irudiaren inguruan dagoen delegazionismo maila kezkarriari aurre egiten lagunduko digu. Helburu honetan, antolamendu (garapen antolatzailea) eta egintza sindikaleko arduradunak Biltzar Nazionalerako "atal sindikaleko aktibatze" mekanismoetaz lana prestatzen ari dira.

Dena dela ere bere sustapenaren inguruan xede jakin batzuk ezartzen ditugu:

a) Eratutako atal sindikalak.-

Afiliatuen biltzarra subjeto aktibo gisa sustatu eta bultzatu behar da. Komunikazio eta/edo funtzionamendu inertziak behar puntualekiko bakarrik haustea derrigorrezkoa egiten da. Egiturak sindikatu guztiaren gogoeta eta dinamika guztien partaide egin behar ditu (enplegua, H.K.a, afiliazio politika, antolatze erronkak...) eta era berean, beren gogoeta eta berariazko arazo hartzaila izan behar dute.

b) Eratzeke dauden atal sindikalak.-

Eratutako atal sindikalak sustatzeko ezarritako dauden lan ardatzak baliogarriak izanik, gure lan plangintzari lehentasun batzuk gehitzea besterik ez zaigu falta:

- **Xedetzat 50 langile gaineko enpresak** eta bertan gutxienez **%10eko afiliazioa** izatea ezarri behar da.

- Enpresa/sektoreko berezko esparrutik sindikatuari egiten dion ekarpena atera behar da. **Atal sindikaleko pertsona bat herri biltzarran sartzea** eta sektore egiturari egiten dion ekarpena funtsezkoa da sindikatuaren antolatze eraikuntza gorpuztu dezagun.

2.5.2.- HERRI BILTZARRA

Gurea bezalako antolatze eredu batean, Idazkaritza Nazionaletik berezko dinamikak dituzten bi alderdi sortzen direnak izanik (lurralde eta sektorekoa), beharrezkoa da **egitura paralelo hauen txertatzea gertatzea. Elkartzeko hau arazo politikoak, ekonomikoak, laboralak eta sozialak era oso batez ikus daitezkeen lekutan era natural batez ematen da, eta gainera, herri esparruan hurbitasun handiagoa ematen da.**

Ezin gaitzke **eskualdeko herri guztietan herri biltzarrak modu sinkronizatu, mimetiko eta linealean eratzean itsutu**, gero ahuleriaz hil dakizkigun. Herrian, biztanleria aktiboa, osaketa soziologikoa, parte hartze ahalmetan, Arloen eraginan... dagoen ekoizpen ehunaren arabera **lehenetsunak eta erritmoak** ezarri behar ditugu.

Berezko **lan egiasmo eta helburuekin** ihardun ahal izateko, **eskualde idazkaritzatik sustatuak izango direnak, eta ez bakarrik zuzendaritza organoetatik etorritako aginduak betetzearen bizkar izanik**, benetako dinamika (sindikala, propaganda, arloak, atal sindikalekiko harremanak...) utziko duen gutxiengo ardurak izan behar ditugu (4. Biltzarrako ponentzia). Sindikatua aretotan inbertsio ahaleginak egiten ari da eta honi Herri Biltzarrako funtzionaltasunaren benetako iharduera egokitu beharko lioke.

2.6.- BARNE ANTOLAKETA, NAZIO MAILAKO ARDURAK

Orain arte, esku hartze eta zuzendaritza egituren antolatze garapenaz bakarrik mintzatu gara, zein lurraldekoaz zein sektorekoaz. LABek ere, antolatze garapenari laguntzeko eta eraginkortasuna emateko bere barne antolakuntzan etengabeko bilakaera egitea behar du.

Sindikatuaren hazkundeak (ordezkaritza, giza baliabideak, aurrekontuak...) barne antolakuntzaren eta antolatze garapenaren hobekuntzaren artean teilatze egoki bat egitera behartzen digu. Azken urtetan, gure esku hartze lehenetsunetaz eraginda, barne antolakuntzaren atala "tirakadaz" ihardan da, eta beraz, planifikazio eza izan du. Eraitza begibistakoa izan da: daukagun barne antolakuntza ezgauza da geure garapenari erantzuna emateko.

Ildo honetan, Biltzarra egin bitartean, eta ahal den heinean pilatua dagoen barne antolakuntza eza hau "eguneratzeko" edo bateratzeko asmoz ahalegin berezi bat egitea proposatzen dugu.

2.6.1.- Funtzionamendu orokorrarekiko proposamenak.-

Lehenengo eta behin, beharrezkoa deritzagu, Biltzarre Nazionala eta ondoriozko Herrialdeko Biltzarrak gertatzen diren arte, ekarpen honetaz arduratuko den taldea irauteari. Beraz, proposamen honen garapenerako ardura zorrotzak zehazteari funtsezkoa deritzagu. Ildo honetan, eraitza baikorrak jaso nahi baditugu eta lan honen filosofiaren bidean esperientzia metatu nahi badugu antolatze garapena eta barne antolakuntzaren zereginak banandu behar direla planteatzen dugu:

a) Garapen eta antolatze garapena.-

Egungo sektore garapenaren ardura nazionalak bere zereginak lurralde egiturara zabaldu behar ditu. Gure egituren antolatze garapenaren proposamenak, era berean, Herrialdeko lau idazkariak zuzenki konprometitu behar dituen zerbait da. Bost pertsona hauek izango dira ildo honetan hartuko ditugun erabakiak gauzatzearen arduradunak. Arduradun honek bere gogoetak eta/edo proposamenak Exekutiboan azalduko litzuke eta beharrezkoa balitz, Idazkaritza Nazionalan.

b) Antolakuntza.-

Egungo antolakuntzako ardura nazionala, aldi honetan, "barne antolakuntza" oinarrikoak diren ataletan sindikatua abiatzera bideratu behar dugu. Alegia, gai horiekiko ekin beharko diogu eta beharrezkoak diren neurriak sartuko ditugu, hauek barik, talde mailako iharduera korapilatsuagoa izango baita.

Errepaso labur bat eginez, ardura honetatik bereganatzeko eta garatzeko dugun gairik premiazkoenak honakoak izango lirateke:

• Afiliazio politika

Gure asmoa iaz hasitako lan ildoari jarraitzea izango litzateke, baina ardura gehiago eskainiz. Afiliazioaren aregotzeari dagokionez LABen potentzialtasunek oso handiak izaten dira. Honakoak izango lirateke iharduera irizpideak:

- Xedeak eta afiliazioa areagotzeko urteko egitasmoak ezartzea.
- Egituretan egitasmoen garapenaren jarraipena.
- Batzorde nazionalari dinamika emanez afiliazioaren kudeaketa hobetzea.

• Hauteskunde Sindikalak

Aurtengo Maiatza-Ekaina arte tentsionamendu handi bati eusteaz gain beharrezkoa da sindikatuaren hedatze egitasmo "iraunkor" bat abiatzea eta bere jarraipena planteatzea, sektore eta lurralde mailako ardurak sendotuz.

• Nazio mailako Kanpainak

LAB gisa edo beste erakunde sindikalekin egitaratuko diren nazio mailako kanpainen antolakuntza parte hartuko da, koordinazio eta lan amakomuneko mailak ezarri, eta batik bat, Komunikazio eta Diruzaintzari dagokionean.

- **Inbertsio politika**

Inbertsio politika lokaletan eta azpiegituran, sindikatua bere alderdi guztietara hedatuz, sekuentzia logikoa izan behar du. Hori dela eta, gure aukera ekonomia-finanziarietara eta garapen erronketara zorrotasunez egokitu behar dugu. Beste hainbeste gertatzen da lan egoitzetan ihardun ahal izateko beharrezkoak diren azpiegiturekin.

Berebiziko garrantzia du LABeri egiten zion Ondare Sindikalaren lagapen prozesuari jarraipen zuzena eta hurbila egiteak, "bultzada" dinamikak saihestuz.

- **Sistema informatikoa**

Sindikatuaren informatizazioan etorkizunerako bermea izango duen jauzi kualitatiboa egiteko beharra dago. Gure beharretara egokitua dagoen egitasmo informatikoari ekin behar zaio.

Esparru honetan, gure koadroen erabilerako, datu-banku bat sortu beharko litzateke, eta baita ere arlo eta ardura desberdinen beharretara egokitua legokeen ARTXIBU bat.

- **Giza baliabideen politika**

Beharrezkoa da giza baliabideen politika bat izatea, egun nahastuak eta erantzunik gabe dauden alderdi anitzei ekiteko.

Pertsonal gastuaren kontrola, kotizazio gaiaren kudeaketa, "kontratazio" politika, prestakuntza eta kuadroen birziklatzearen beharra... LAB bezalako ezaugarriak dituen erakunde baten ezaugarrietatik abiatua erantzun eta kudeaketa egokia izan behar dute.

- **Sindikatu argitarapenen berrantolaketa.**

Sindikatuak bere egitura desberdinetatik burutzen dituen argitarapenak eraginkortasunean irabaz ditzaten eta eduki berdina dituzten "produktu" desberdinak oso antzeko afiliatu sektoreari irits dakizkion eragozteko gogoeta subjektua izan behar du.

Afiliazioari zuzenduriko produktuak zehaztu behar dira eta enpresa eta/edo sektoreko langileekin egiten dugunari dagokionean jautzia egin behar da.

- **Sindikatu barneko euskalduntzea**

Euskara arduradunaren laguntzaz barne euskalduntzeari ekingo zaio.

- **Biltzarraren prestatze teknikoa**

Dagoeneko, V. Biltzarra gure kezken iturri hasi da izaten. Tekniko-antolatze ikuspuntutik, bere unean adostuko den talde batekin, barne antolakuntzako arduradunak bere "antolatzea" ere bere gain hartuko du.

Maiatzako lehenengo asterako Idazkaritza Nazionalean gai bakoitzako berariazko egitasmoak izango genituzke, eta, ondorioz, errekursoak egitea beharrezkoa den ala ez, aintzat hartuko genuke.

IDAZKARITZA NAZIONALA

Euskal Herrian, 1999ko otsailan.